

AIAKO UDALEKU IREKIAK 2021

BEGIRALEAK HAUTATZEKO DEIALDIA

2021ko Uztailaren 5etik uztailaren 30ra udaleku irekiak antolatu ditu Aiako Udalak 2009 eta 2018 urteen bitartean jaiotako haurrentzat. Honela, udaleku hauetan begirale gisa aritzeko deialdia luzatzen dizuegu.

Begiraleen kontratazioa Uztailaren 1tik uztailaren 30ra bitartekoa izango da.

Begiraleak hautatzerako garaian, hautagaiek bete behar dituzten **ezinbesteko baldintzak** honako hauek izango dira.

1. 18 urtetik gorakoak izatea edo 2021 urtean betetzea.
2. Euskara ezagutza izatea.

Bestalde, aukeratzeko baloratuko da:

3. Begirale titulua izatea 6 puntu
4. Eusko Jaurlaritzak homologatutako eskolak: 6 puntu
5. Beste eskolak: 4 puntu
6. Zuzendari titulua izatea (2 puntu)
7. Hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak izatea (3 puntu)
8. Hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak burutzen aritzea 0,5
9. Lan esperientzia urtea bakoitza puntu 1 (5 puntu gehienez)

- Asialdiko begirale ludoteka edo gaztelekuetan
- kirol begirale eskola kirolean.

10. Udaleku itxi eta irekietan hamabostaldi bakoitza 0,5 puntu. Gehienez ere 3 puntu.

11. Aiarra izatea (5 puntu)

12. Aiako udalak sustatutako kultur- kirol Aisialdi zerbitzuan Begirale moduan lanean egon izana 8 puntu

Aukeratuak izan diren hautagaiek, adingabekoekin lan egiteko aurrekari penalen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, besteak beste.

Aukeratuaren artean berdinketarik egongo balitz, zozketa bidez erabakiko da.

Epaimahaia:

Epaimahai-buru: Joxemari Aiertza. Mahaikideak: Igor Iturain eta Mikel Iradi eta Idazkari lanetan, Xabier Osa

Beraz, interesa duenak kurrikulum-a eta informazioa egiaztatzeko dokumentazioa ekarri beharko du Udaletxera. Epea maiatzak 21ean bukatzen da. Ez da onartuko epez kanpoko izen-ematerik.

Informazio gehiago 943131144 telefonoan edo aia@aia.eus helbide elektronikoan.